



CASTILLO SUAREZ

“PLAZER HUTSAGATIK IRAKURTZEA DA GAKOA”

Aiman, Malak, Anas

Castillo Suárez García Sakanako idazlea elkarrizketatu dugu. Bereziki atentzioa eman digu bere web orrialdeak eta literaturari

buruz egiten dituen hausnarketak.

Zein izan zen zure lehenengo poema?

Ez dakit zehazki zein izan zen nire lehendabiziko poema, dakidan bakarria da Iruñeko Udaleko lehiaketa batera aurkeztu nuela beste poema batzuekin batera. *Amodio galduak* deitzen zen poema-sorta hura, eta saritua izan zen.

Zure poema guztiak web orrian daude?

Nire poema guztiak liburuetan daude argitaratuta. *Iparraldeko neska* blogean ale solte batzuk besterik ez dago.

Nola/zergatik bururatu zitzaizun Interneten jartzea?

Berrikoek proposatu zidaten bloga egitea eta erabaki nuen *Iparraldeko neska* bloga sortzea. Bertan nire gustuko poemak jartzen ditut, irudiekin batera. Baina gehienak beste egile batzuen testuak dira.

Poeta edo idazlerik izan al zenuen erreferentzia gisa?

Euskal literaturan oso poeta onak daude: Jon Gerediaga, Jose Luis Otamendi, Miren Agur Meabe... Baina euskaraz plazaratzen diren poema liburu guztiak irakurtzen ditut, onak ala txarrak izan.

Zein da zure poema gustukoena?

Zeruaren ederra, Jon Barberenari eskainia.

Zergatik uste duzu nerabeei ez zaiela irakurtzea gustatzen? Eta zer egin ahal da?

Seguruena nerabeei ez zaie irakurtzea gustatzen eskolan agintzen diren irakurketekin lotzen dituztelako liburuak. Plazer hutsagatik irakurtzea da gakoa.

Idatzi duzu gaztelaniaz?

Ez dut inoiz gaztelaniaz idatzi. Beti itzuli dizkirate poemak gaztelaniara, edo beste erdal hizkuntza batzuetara.

Zer garrantzi du naturak zure poemetan?

Naturako elementuak erabili ditut *Irautera* liburuan balio sinboliko handikoak diren aldetik. Esango nuke azkeneko urteetako joera hori dela nire poesiagintzan, alegia naturako elementuak erabiltzearena.

Proiekturen bat egiten ari zara orain? Etorkizunean, zer?

Nire azken liburua plazaratuko dut abenduan: *Elurra elurraren gainean*. Eta beste sorta bat daukat idatzita, heldu den urtean argitaratzeko asmoa dudana.